



Eman hegoak euskarari



Abentura gose

JON MARTIN-ETXEBESTE

Bulkada gutxi dira gosea bezain basatiak; une gutxi, norbere bizitza salbatzearen ihes egitea baino zirratsuagoak. Testuak eta irudiak, biak, sortzeko gai da Maria Girón, eta album ilustratueta-ko hainbat baliabide klasiko konbinatuta liburu gozagarriak osa daitezkeenaren adibidea da hau. Bost sagutxoren istorio xaloa kontatzen du ipuinak. Animalia honen tamainak erraztu egiten du haurrak pertsonaiekin identifikatzea eta, bide batez, munduko elementu nimiñoak lupaz behatzeko aitzakia ematen du. Sari handi bat lortzearen arrisku handi bat hartzearen edo dagoenarekin konformatzearen arteko dikotomia da liburuaren muina. Pitti sagua da bere bosteko taldetik grinatsuen; bere konformaezintasunak, ordea, piztia trakets samar baten sabelera bidera dezake...

Haurrei bideratutako kontakizunetan ohikoa den kontaketa jolasa du oinarrian albumak. Bost dira abentuari ekiten dioten saguak eta narratzailearen ahotsak bostetik batera zenbatuko ditu saguak txangoa egin ahala; gero, batetik bosterako kontaketa egingo du berriz, hariak eta gordelekura itzultzen diren arte. Egitura zirkularra eta amaiera zoriontsua du beraz. Errepikapena baliabide indartsua da halako liburuetan eta formula beraren erabilera haurren inplikazioa bermatzen dute eta elkarrizketak aurreikusteko jolasa proposatzen. Xabier Olasok itzuli du, ohi duen erritmoz eta musikalitatez. Ilustrazioak freskoak dira; errealistak, baina lizentzia fantastiko txikiak hartzen dituzte (lurpeko bizitzaren mozketak edo katuaren erraien ikuspegiak, adibidez). Marruskari bihurri hauek altxor txikiak lapurtzeko duten joerak edertzen du orrialde bakoitza eta etxe barrura sartzen diren eguzki izpien irudikapena distiratsua da. Eta zu, nolako sagutxoak zara: 'urru-tiko intxaurrak hamalau' amesten duenetarikoa ala 'bertan goxo' pentsatzen duenetakoa?

BOST SAGUTXO MARIA GIRÓN

Pamiela, 36 or, 14 euro



«Nire obrarik potenteena eta profesionalena da»

Xsakara.

Artista bermeotarrak 'Ilargiaren Semea: Deluxe Edition' dakar Landakora

OIHANE CALVO

Urteak daramatza musikaren munduan Xsakara rap abeslariak (Bermeo, 1997) –Xabier Gutiez benetako izenez–. 2020. urtean atera zuen bere aurreneko albuma 'Ilargiaren Semea 16 19'. Geroztik, musika sortzen jarraitu du, eta beste bi EP kaleratu izan ditu: 'Lurrikarak' eta 'Lurrikarak 2.0', 2022 eta 2023an, hurrenez hurren.

Urte honetako martxoan 'Ilargiaren Semea' albuma eman du ezagutzera, azken bost urteetan sortutako obra kontzeptualari amaiera ematen dion lana. Hala ere, ez da hor geratu Bermeoko artistaren proposamena. Geruza berriak eta energia berriak gehitzen dituzten lau abesti berriekin, Xsakarak azken disko horren edizio 'deluxe' bat dakarkigu aurtengo Durangoko Azokara: 'Ilargiaren Semea: Deluxe Edition'.

Ilargiaren Semea

«Martxoan atera zen lanaren izenburua 'Ilargiaren Semea' da, neure buruari aspaldi jarri nion ezizena. Album horrek orain dela bost urte hasitako etaparen amaiera markatzen du. Izan ere, 2020an hasi nuen lan kontzeptuala osatzen duen zirkulua ixten du», azaldu du kantari bermeotarrak.

Xsakarak berak dioenez, lan guztiak elkarren artean konektatuta daude. «'Ilargiaren Semea 16 19' izan zen nire debut albuma, eta bertan, nire bizitzako garairik latzena –16 eta 19 urte bitartekoa– laburbildu nuen. Ondoren, 'Lurrikarak' eta 'Lurrikarak 2.0' EPak etorri ziren, eta lehen laneko mamuak uxatu zi-



tuzten. Hau da, lehenengo lurrikarak arrakalak sortu zituen, 'Ilargiaren Semea 16 19'ko 16a apurtuz, eta bigarren lurrikarak, berriz, 19a apurtuz. Emaitza 'Ilargiaren Semea' da, a sekas, zikloa ixten duen azken fasea, obra kontzeptual osoari zentzua ematen diona».

Rapa oinarri izanda, beste estilo batzuk ere –trap, techno...– jorratzen ditu Bermeoko abeslariak 'Ilargiaren Semea' albumeko bederatzi abestietan. Gainera, herriko lagunez inguratu da kolaborazioei dagokienez. Dgabanna artistak ez ezik, Bermeoko Etxekalte taldeak eta Aritz Lertxundi kuadrillako lagunak ere parte hartu dute. «Nire ustez, kaleratu dudan obrarik potenteena eta profesionalena da. Batez ere, eskainitako denbora, egin-dako esfortzua, jarritako gogo-

eta sartutako dirua kontuan harturik», gaineratu du.

Koska bat estuago: deluxe edizioa

'Ilargiaren Semea' albumaren edizio deluxe bat ateratzeko ideia modu natural batean bururatu zitzaion Xsakarari. «Gaur egungo industria oso arin doa, eta martxoan kaleratutako diskoari bizi gehiago emateko asmotan, koska bat estuago egitea erabaki nuen», adierazi du. Azken urteetan sortutako obra kontzeptuala guztiz zarratzeko aukera ezin hobea ikusi zuen Bermeoko artistak azaro hasieran argia ikusi zuen deluxe edizioan: «2020ko abiapuntu ilunetik gaur egungo argitasunerako egin dudana bidaia pertsonala eta artistikoa perfektuki islatzen duela uste dut. Eboluzio bat dago eta hori hitze-

Artista hurbila
Xabier Gutiez
artista bermeotarra
Xsakara izen artistikoarekin da ezaguna.

ADRIANA FARIÑAS

tan, produkzioan eta kalitatean nabaritzen da».

Guztira, hamahiru kantuk osatzen dute 'Ilargiaren Semea: Deluxe Edition' albuma. Disko originaleko bederatzi abestiei, lau berri gehitu zaizkie; horien artean, 'Parrandazale', eta Anixe, Fane, Axeri, Eli, Maida, eta Densorekin batera kaleratutako 'Dj jarri bat geyo'. Beste bi kolaborazio ere badaude. Euskara eta katalana nahasten dituen 'Hemen' kantuan Lluc abeslari katalana izan du lagun Xsakarak, eta 'Zurekin baina bakarrik' abestian Olatz Salvadorren lankidetzaz berezia izan du.

Zaletuengandik hurbil

Xsakara zuzenean ikusi nahi duenak, hurrengo hilabeteetan izango du aukera. Abeslari bermeotarrak Ilargiaren Semea Tour biraren datak iragarri ditu sare sozialetan. Dagoeneko hiru kontzertu eskaini ditu, baina ez larritu, oraindik garaiz zaude. Urteko azken kontzertua abenduaren 13an izango da, Gasteizko gaztetxean, eta urte berria ere indarrez hasiko da. Urtarrilaren 18an Bartzelonako Heliogabal tabernan egongo da, otsailaren 7an Iruñeako Txintxarrin eta 8an Madrilgo Café La Palman.

Durangoko Azokan ere izango dugu datorren ostiralean, abenduaren 6an. Ahotseneako eszenatokira igoko da gaueko 21.30ean. Gainera, gainontzeko Azoka egunetan bere standean egongo da diskoak eta merchandisinga saltzen, eta gerturatzen diren zaletuekin hitz egiteko prest. «Nahi duen guztia etor dadila. Oso pertsona hurbila naiz, besteekin berba egitekoa. Beraz, esku zabalik egongo naiz» aitortu du.